


## UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Ekimen sozio-kulturalak (2018/10/23)</b>  Hurrengo saioa: 2018/11/07	Auzolana azaroaren 3ra atzeratzea, eguraldi txarragatik	Auzolanari dagozkion azken zehaztapenak aipatu dira. Azaroaren 3a baino lehen aurreikusten diren zereginak: mugitu behar diren panelak aterata jarri, sartu behar diren posteetan zuloak eginda jarri, Epelde aldeko bidea desbrozatu, hesolak behar diren lekura eraman, hesolak sartzeko tramankulua erreserbatu, baita panelen eta posteen zuloak egiteko perkutorea ere.	9 lantalde aurreikusi izena emandako 51kin: panelak jartzen (2), Madurea (1), Atinzabalen (1), desbrozaten (1), Lorategiak (1) Egiluzeazpin (1), Itsaso-Alegia seinalizatzen (1), Euskaraldia (1).

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2018/10/30)</b>  Hurrengo saioa: 2018/11/13)	Jubilatuen eguna	Etxeetara bidaltzeko jakinarazpena prestatu da eta oroigarri moduan emango dena ere zehaztu da. Egiteko dauden lanen ardurak banatu dira: abesbatzarekin eta musikariekin harremanetan jarri, loteak egiteko gaiak eskuratu, loteak egin, ...	- Jakinarazpena banatu - Abesbatzarekin harremanetan jarri - Loteak prestatu - Jatetxekoei bazkaltiarren kopurua adierazi
	Abenduko ekintza batzuen aurreikuspena	Abenduaren 8an, irudi edo argazkien bitartez, Estatu Batuetako berri emango digute Willis-tarrak (egin duten bidaia, hango ohiturak, ...) Herri Batzarrerako data finkatu dugu: Abenduaren 15ean izango da	Ekintzak zehazten joan
	Herri Batzarra	Gai batzuk proposatu ditugu: ekainetik hona emandako pausuak, uztailean Alegian egindako bileraren berri eman, azpiegitura arloan egindakoa, ikastaroetan dagoen parte-hartzea, Aldundian izandako bilera, zaborrak,...	Gaiak jorratzen jarraitu

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Azpiegitura eta ingurumena (2018/10/31)</b> Hurrengo saioa: 2018/11/14	Etxeetako seinaleak	Falta diren etxe izenen zerrenda zuzen osatzea komeni da, seinale guztiak batera eskatzeko.	Aurreko auzolanean jasotako beharren txostenetik abiatu
	Itsasoko udaletxeko eta kanpoaldeko obra	Eliza pare guztia ere asfaltatu eta aparkaleku berriak marraztuko direnez, eliza-atari parean dagoen farola erditik kendu eta Alegiatik igotakoarekin, albo banatan jarriko dira. Bestalde errepidea altxatzeak Ostatura jaisteko eskailera, beste maila bat ateraz, berritzea eskatzen du. Plazatik behera egindakoaren antzera egitea erabaki da.	Aurreikusi gabeko lan hauen aurrekontuak zehaztu



**ITSASOKO**  
**UDALA**  
(GIPUZKOA)

	Alegiako bide berdea	Bide berdea asfaltatu aurretik hainbat aurrelan burutu behar dira eta lurjabeekin irtenbideak adostu	
	Alegiako Madurea zeharkatzen duen ubidea	AHTk obra bukatu zuenean, herri-bidearen ubidea erabat berdinduta utzi zuen eta harrez gero autobideko urak zelaietan geratzen dira. Foru Aldundiak hormigoizko 1,5 metroko ubidea urtea bukatu aurretik egingo duela agindu du	Obra hau egin ondoren, bidea hesitu eta pasorako libre utziko du Udalak